

## **Balorezko proposamenak**

Definizioa: Enpresa batek bezeroari eskaintzen dizkion etekin edo onura multzoari deritzo balorezko proposamena.

Gure proiektuarekin bezeroak bere sentimenduak asetzen laguntzen duen dohainikako web orria da eta honek, gogoaldatea hobeto dezake. Modu berean, zure barnea hobeto ezagutzen laguntzen du, nahiz eta denbora pasaldi bat izan.



Kasu honetan, enpresaren balioa kualitatiboa da, sentimenduetan oinarritzen delako, eta ez gauza materialetan. Honekin lortu daitekeena da besteengandik bereiztasun bat lortzea, eta gauza berriak eskaintzea, modu honetan gure bezeroa kontentua uzten dugu.

Bestalde, produktu hau erabiltzerakoan, erosotasuna, azkartasuna eta segurtasun minimo bat eskaintzen da, ez baitago arriskurik. Gainera produktu hau erabiltzeko zailtasunik ez dituzu aurkituko, egokitua baitago plataforma guztietara (ordenagailua, mugikorra...).



Nahiz-eta leku ezberdinetan bizi, hau erabiltzeko aukera eduki dezakezu, publiko guztientzako eskainia delako eta 24 orduz funtzionatzen baitu.

Aipatu beharra dago ere, erregistratzeko aukera bai dagoela informazio gehiago eta abantaila berriak lortzeko aukera dagoelako.



Arazoren bat izanez gero, bezeroentzako laguntza eskaintzen dugu. Gainera modu pertsonalean izango da arazorik ez sortzeko.

Modu berean, zure iritzia jartzeko atal bat edukiko duzu, hau da, testu txiki bat jartzeko aukera izango duzu 145 karakteretako. Baina gurekin zuzenean kontaktatu nahi baduzue helbide elektronikoa bat izango duzue.

## Startinnova proiektua

---

Lehiakideetatik desberdintzen lortzeko gure proiektuak bezeroarentzat baloreak sortzea datza, adibidez, nobedadea, prestazioak, pertsonalizazioa, lana erraztea, diseinua, marka edo estatusa, prezioa, arriskuak murriztea, eskuragarritasuna eta erabilerraztasuna. Guk honako elementu hauek erabiliko ditugu gure proiektua ondo atera dadin eta gure bezeroa gustura egon dadin guk eskainitako zerbitzuaz:

Nobedadea izango da erabiliko dugun lehenengo elementua, orain arte ez baita sortu gure produktuaren antzekorik. Gure produktua sortu ondoren, hau horrela izaten jarraituko dugu, izan ere, epe jakinetan, neguan, udaran... epe horretarako egokituak dauden espezialitateak sartuko ditugu. Gainera, bezeroak eskainitako donazioekin gauzak berritzen joango gara, modu honetan eguneratua egon dadin, eta momentuko pelikulak, musika eta aber gehiago eskainiko dugu.



Diseinuaren kasuan, esan bezala gure web orria eguneratua egongo da, fideletasun, dotoretasun eta hurbiltasun bat banatu nahi dugulako.

Gure kasuan, ez dugu marka bat sortuko, ez baitugu nahi gizartearen banaketa bat egin nahi, guru ustez pertsona guztiak berdinak bagara, denak gauza berdinetaz gozatzeko aukera izan behar dugu.

Azkenik aipatuko dugu, gu ez garela prezioan oinarrituko, zuek, bezeroak erabakiko baitu donazioen bitartez ze nolako kantitate ordainduko zenuketen produktu honen gatik, eta suertatu daiteke prestigio maila bat lortzea, eta hau lortuta hau mantenduko dugu

